



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urriaren 2a

118. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Lege proiektua (2. or.).
- Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (17. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira Konstituzioan hezkuntza dela-eta ezarritako askatasunak bermatu eta handitu ditzaten. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da ikastetxe publikoak behar adina baliabide ekonomikoz horni ditzan, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko curriculum-jarduerak egiteko nahiz beharrezkoak diren eskola-material suntsikorak lortzeko zailtasunak dauzkaten ikasleen beharrezanean erantzute aldera. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nasuvinsaren alokairu-poltsan sartzen diren etxebizitzak alda ditzan. Osoko Bilkuran izapidetzea (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxebizitza partekatuko Belaunaldiarteko Programa bat sor dezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan. Eskubide Sozietako Bartzordean izapidetzea (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko jarduketa plan bat abian jar dezan. Osoko Bilkuran izapidetzea (23. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Datu pertsonalen babeserako Nafarroako Parlamentuko ordezkari izendatzea (24. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Lege proiektua.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 24an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko irailaren 19an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Xedatzea Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

**2.** Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hilabete bateko epea irekiko da, **2018ko urriaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2018ko irailaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Lege proiektua**

### ATARIKOA

#### I

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikuluan ezarritako dagoenez, pertsona orok du eskubidea erkidegoaren kultur bizitzan libreki parte hartzeko, arteez gozatzeko, aurrerapen zientifikoan eta horrek dakartzan onuretan parte hartzeko, bai eta, azkenik, norberak egindako lan zientifiko, literario edo artistikoak direla-eta dagozkion interes moralak babestuta izatekoa. Ondoren, Ekonomia, Gizarte eta Kultur Eskubideetarako Nazioarteko 1966ko Itunaren 15. artikuluan ezarri zen itunaren sinatzaile diren estatuak eskubide horiek aitortzen dizkietela pertsona orori, eta, horrekin batera, estatuaren konpromisoa, eskubide horiek ziurtatzeko behar diren neurriak hartzeko.

Nazioarteko zenbait testu eta agiritan ere aipatzen da gai hau. Hauek dira nabarmenenak: Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala, UNESCOren Konferentzia Nagusiak 2001eko azaroaren 2an onartua; aipatutako Nazioarteko Itunaren 15.1 a) artikuluari buruzko 21. Ohar Orokorra (pertsona orok eskubidea du kultur bizitzan parte hartzeko), Ekonomia, Gizarte eta Kultur Eskubideen Batzordeak 2009an egindakoa; kultur eskubideen alorreko errelatore bereziak egindako aldizkako txosten sektorialak, 2010etik aurrerakoak; edo, arauen mailan, UNESCOren Konbentzioa, kultur aniztasuna babestu eta sustatzeari buruzkoa, Parisen 2005eko urriaren 20an egindakoa, Espainiako Erresumak 2006ko abenduaren 18an berretsi zuena.

Iturri horiei guztiei gehitzen ahal zaizkie Europako Kontseiluaren Batzar Parlamentarioan kultur bizitzan parte hartzeko eskubideari buruz izandako ekimenak eta lanak, bai eta gai zehatzei buruzko beste batzuk ere, hala nola kultur ondare material eta immaterialaren babesari buruzkoak.

Denen artean, berez garrantzi nahikoa duen esparru kontzeptuala osatzen dute, dudarik gabe, baina, estatuen barneko erabilerari begira zehaztapen handiagoa behar da arauen mailan, haietako batzuek ez baitute indar juridiko loteslerik.

## II

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 44.1 artikulua ezartzen du botere publikoek kultura eskura izatea sustatu eta zainduko dutela, eta pertsona guztiek dutela kulturarako eskubidea. Begi bistakoa da legegileak zehaztu behar duela eskubide horren edukia, eta estatuko ordenamenduan nahiz Nafarroako Foru Komunitatekoan emandako xedapen sektorial batzuk lagungarriak dira kulturaren arlo jakin batzuetan hura zedarrizteko, ondare material eta immaterialaren kasuan, edo museo, artxibo eta liburutegiei dagokienez, esate baterako.

Komeni da, halere, kultur eskubideen antolaketari juridikoa egitea, eskubide horiek gauzatzen diren sektoreei ezinbesteko arreta emateaz harago joan, eta eskubideen beraien esparru orokor, argi eta zehatza ezar dezan, arestian aipatutako nazioarteko testuetan oso argi jaso diren ideia nagusiak ardatz harturik. Esan nahi baita, izaera unibertsalarekin aitortzen zaizkiola pertsona orori bai bere kultur aniztasuna bai askatasuna bere kultur identitatea aukeratzeko eta kultur bizitzan parte hartu edo ez, eta nola parte hartu, erabakitzeke. Izan ere, unibertsaltasuna, aniztasuna eta askatasuna dira kultur eskubideen bizkar-hezurra osatzen duten balioak, eta ez da harriztekoa hala izatea, eskubide guztiek, zein diren ere eransten dizkiegun adjektiboak, pertsonen duintasunarekin lotura estua dutela onartzen badugu. Horregatik, adibidez, kultur aniztasuna ezin da erabili giza eskubideen errespetuarekin bateraezinak diren jardunbideak edo adierazpenak justifikatzeko, halakoak izateagatik pertsonen duintasunaren kontrakoak baitira.

Kultur eskubideak beren horretan eskubideak direnez, botere publikoek horiekiko dituzten betebeharrak gainerako eskubideekiko dituzten berberak dira: errespetatu, babestu, eta haien egiazko erabilera erraztu eta sustatzea. Horretarako, nahitaezkoa da eskubideen edukia zehaztea, eta sozietate demokratiko batean lan hori gehienbat herritarren ordezkariari dagokie –parlamentuei, alegia–, ukatu gabe epaileek eta auzitegiek ere, beren eginkizun juridikozionala betez, zehaztapenak edo interpretazioak eranstea beharrezkoa denean.

## III

Horiek dira Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Lege honen abiapuntuak; Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.8 artikuluan xedatutakoan babesten da eskumenei dagokienez, eta haren xedea da Nafarroako Foru Komunitateko herritarren kultur eskubideak bermatu eta sustatzea, honakoak defendatuko dituzten kultur politikak bultzatuz: kulturaren balioa, denon ondasuna den aldetik, eta kulturarako irispidea izateko eta kultur bizitzan parte hartzeko eskubideak, gizarte berdinzaleagoa eta demokratikoagoa eraikitzeke zutabeak diren aldetik.

Nafarroa identitate aberatsa eta askotarikoa duen erkidegoa da, bere-bereak diren gobernantza ereduetan errotutako historia duena, eta horregatik, kulturak hainbat zeregin betetzen ditu bertan: kidesunaren sentimendua sortzen du, pentsamolde kritikoa laguntzen, jasangarritasuna hobetzen, erkidegoko lurralde egituren osaketan eragiten eta, oro har, gizartearen elementu integratzailea, eraldatzailea eta dinamizatzailea da, enplegua sortzeko eta garapen ekonomikora eragile garrantzitsua izateaz gain.

Horrenbestez, foru lege hau aurrerapausoa bat da, kulturarako eskubidetik kultur eskubideetara pasatzea, alegia, eta lagungarria izanen da eskubide horiek, giza eskubidetzat hartuz, benetan erabil daitezten, eta kulturarako nahiz sorkuntza artistikorako irispidea izateko eta kultur bizitzan parte hartzeko aukera unibertsalak izan daitezten; orobat, sormen-gaitasunerako pizgarri izanen da, eta arte adierazpenetarako babes, eta kultur arloan lan egiten dutenen eta kultur eta sorkuntza industrietako ekintzaileen zereginari babesa eta aitortza emanen dizkio.

## IV

Foru lege honek honako egitura du: sei titulu, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

I. tituluaren edukia xedapen orokorrak dira, eta bertan foru legearen xedea, oinarrian dauden printzipioak eta aplikazio esparrua jasotzen dira. Era berean, kultur eskubideak zein diren adierazten du titulu horrek, eta horiek osotara eta libreki erabiltzea bermatzeko agintzen die Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoei.

II. tituluan kulturarako irispidea izateko eta kultur bizitzan parte hartzeko eskubidea arautzen da. Administrazio Publikoek begiratu beharko dute

eskubide horiek betetzen direla, eta egiazko berdintasuneko araubidean gauzatzeko behar diren baldintzak jarri eta neurriak hartuko dituzte, pertsona eta talde ahulagoen eta desgaitasuna dutenen inklusioa eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatuta egoteko.

Kulturarako irispidearen arloan, aurreikusten dira, batetik, irispide fisikoa, kultur zentro, museo, artxibo, liburutegi, antzoki, auditorio eta kultur ondarea osatzen duten ondasunetara sartzea, eta, bestetik, irispide birtuala, alegia informazioaren teknologien eta kultur bitartekaritzan bidez gauzatzeko dena.

Berariaz arautzen dira zenbait gai: Nafarroako Kultur Ondarearen parte diren ondasunetarako sarbidea, horien bisita publikoa baimentzeko betebeharra, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean adierazitakoa, erregulatuko duen araubidea zehazten baita; ondare immaterialerako irispidea eta haren sustapena; dokumentu-ondarerako, museo eta bilduma museografiko iraunkorretarako irispidea, eta, azkenik, liburu eta liburutegietarako irispidea.

Zinemaren eta ikus-entzunezkoen arloari dagokionez, nabarmentzekoa da kultur arloko eskumena duen departamentuaren mendeko Nafarroako Zinematekaren eginkizunen arautzea.

II. tituluan daude, halaber, arte eszenikoei, musikari, kultur eta sorkuntza ekosistemari eta kultur ekipamenduei dagozkien xedapenak.

Azkenik, aitortzen da pertsona orok, banaka nahiz taldean, eskubidea duela kultur bizitzan eta kultur arloko politika publikoekin lotutako erabakiak hartzeko prozesu garrantzitsuetan parte hartzeko, gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta gobernu irekiaren gaineko araudiaren esparruan, partaidetzarako bestelako tresnek aurreikusten dituzten beste arau batzuetan xedatutakoa ukatu gabe.

III. titulua arte eta literatur sorkuntzari eta ikerketa zientifikoari buruzkoa da. Alde batetik, I. kapituluak sortzeko eta ikertzeko askatasunari heltzen dio, eta II. kapituluak, berriz, Administrazio Publikoek esparru horietan egin beharreko sustapen eta zabalkundeari.

IV. tituluak Administrazio Publikoek kultur arloan duten erantzukizuna arautzen du, eta ezartzen haien jarduna jarduera publikoaren gardentasunaren gaineko araudiaren esparruan bete behar dela.

Kultur sektoreetan aritzen direnen profesionalizazioa bermatzeko xedeaz, berriz, kultur arloko

eskumena duen departamentuak bete beharreko jarduketak ezartzen dira.

Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez, kultur arloko eskumena duen departamentuak gai hauen gaineko eskumenak esleituak dauzka: kultur ondarea babestu eta handitzea; herritarrek kulturarako irispidea izatea; arte sorkuntza eta zabalkundea bultzatu eta sustatzea; foru lege honetan aitortutako eskubideak eraginkorrak direla eta legea betetzen dela begiratzea, Nafarroako Gobernuari dagozkion eskumenak eta Foru Komunitateko Administrazioko gainerako departamentuekiko koordinazioa ukatu gabe.

Horretarako, kultur arloko eskumena duen departamentuak garatu beharko dituen jarduketak, neurriak eta programak ezartzen dira, hain zuzen foru legearen xedek eta helburuak betetzeko eta jasotzen dituen eskubideak eta printzipioak egiaz aitortu eta erabiltzeko behar direnak.

Udalerrien kasuan, kulturaren eta kultur ekipamenduen sustapena eginen dute, toki araubideko oinarrizko legeriari jarraikiz berezko eskumena duten heinean, betiere Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeriaren baldintzetan; horrez gain, foru legeak haien kultur ondarearen zabalkundea egin eta hari balioa emateko eginkizuna esleitzen die, ukatu gabe arlo horretako eskumena duen departamentu eskudunarekin lankidetzan aritzea, hura babestu, areagotu eta jakitera emateko xedez.

Bereziki, udalerririk kultur ondare immaterialaren zabalkundeaz eta sustapenez arduratuko dira, eta ahaleginduko Nafarroako herri kulturen eta kultura tradizionalen agerpenak testuinguru historiko, kultural eta lurraldekoan kokatzen.

Udalerriek, bakarrik edo udalez gaindiko entitateen bidez, beren eskumenak betez sustatuko dituzten kultur zerbitzueta batzuk ere jasotzen dira.

V. tituluan Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua jasotzen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kultur arloan duen kontsulta eta aholkuetarako organoa izateko. Halaber, haren eginkizunak aipatzen dira eta osaketa ezartzen, erregelamenduz garatuko dena, antolaketa eta funtzionamenduarekin batera.

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren oinordekoa denez, foru lege honen xedapen indargabetzaile bakarrik xedatzen du bereziki indargabetuko dela Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 10. artikulua, kontseilua legeaz ezarri zuena; xedapen iragankor

bakarrean, berriz, ezartzen da Nafarroako Kulturaren Kontseiluaz antolamendu juridikoan egiten diren aipamenak aurrerantzean Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaz eginak direla ulertuko dela, eta foru lege honek indarra hartzen duenean Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideak Nafarroako Kulturaren Kontseiluko gaur egungo kideak izanen direla.

Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta jardunbidea arautzen dituen araudi indardunean ezarritakoarekin bat gaur egungo kideen agintaldia amaitu ondoren, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideak izendatuko dira foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz.

VI. titulua finantza eta zerga xedapenei buruzkoa da, eta gai hauek aurreikusten ditu: kulturaren finantzaketa publikoa; kultur arloko eskumena duen departamentuak diru-laguntzak eta laguntzak ezartzea; kultur mezenasgoaren zabalkundea; eta kultur ekintzailtzarako funtsak sortzea eta krediturako irispidea, Foru Komunitateko Administrazioi beste departamentu batzuekin edo beste entitate batzuekin elkarlanean egiteko aukerarekin.

Foru legeak Foru Komunitateko zerga arloko legeriara igortzen du kultur eskubideen arloan aplikatzekoak diren zerga onuren gaia, eta espreski aipatzen ditu kultur mezenasgoari, babesletzari eta zinema ekoizpenei eta ikus-entzunezko serieei dagozkienak.

Xedapen gehigarri bakarrean ezartzen denez, kultur arloko eskumena duen departamentuak zerbitzu-gutunak onetsi beharko ditu, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita urtebeteko epean, eta bertan zehaztu zein diren bere eskumen esparruetako prestazioak.

Xedapen iragankor bakarraren xedea, arestian esan bezala, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren oinorde egitea da.

Xedapen indargabetzaile bakarrak foru lege honen aurkako maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetzen ditu, eta espreski honakoak: Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 10. artikulua, baita haren 28. artikuluko b) eta c) letrak ere, 10. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. apartatuek indarra hartzen dutenetik aurrera, foru lege honen hirugarren azken xedapeneko bigarren paragrafoarekin bat.

Azkenik, lehen azken xedapenak Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legea aldatzen du, liburutegi

publikoen oinarriko zerbitzuei dagokienez, bigarren azken xedapenak ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari foru legea erregelamenduz garatzeko, eta hirugarren azken xedapenak, azkenik, indarra hartzea ezartzen du.

## I. TITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honek kultur eskubideen araubide juridikoa ezartzen du Nafarroako Foru Komunitatean, eta pertsona guztiei bermatzen die eskubide horiek eraginkortasunez erabiltzea, foru legean bertan eta gainerako arau aplikagarrietan xedatutakoari jarraikiz.

2. Foru lege honetan xedatutakoa betetzeko, Nafarroako Administrazio Publikoek koordinatuko dituzte kultur eskubideekin lotuta gauzatzen dituzten jarduketak, bermatu eta sustatuko dute eskubide horien erabilera eta kultur ondasun eta zerbitzuetarako irispidea izatea, eta ziurtatuko dute sortzaileen, kultur eragileen eta herritarren parte-hartzea kultur bizitzan eta kultur arloko politika publikoak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko prozesuetan.

### 2. artikulua. Oinarriko printzipioak.

Foru lege honi oinarri ematen dioten printzipioak, Nafarroako botere publikoek kulturaren esparruan gauzatzen duten jardunerako irizpideak ere ezarriko dituztenak, honako hauek dira:

a) Pertsona guztiek kulturarako irispidea izatea eta kultur bizitzan libreki parte hartzea erraztuko duten ekintzak sustatu eta betetzea.

b) Kultur aniztasunaren eta norberaren kultur identitatearen hautapen librea errespetatzea, bai eta inklusioa eta kulturen arteko harremanak sustatzea ere.

c) Nafarroako kultur ondare materiala eta immateriala babestea, zaintzea, zabaltzea eta haien balioa nabarmentzea.

d) Adierazpenerako eta sorkuntza artistikorako askatasuna errespetatzea, bai eta ekoizpen eta sormen lanek sortutako eskubide ukaezinen gozamenaren ere.

### 3. artikulua. Aplikazio esparrua.

Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko da.

### 4. artikulua. Kultur eskubideak.

1. Kultur eskubideen oinarrian balio hauek daude: askatasuna, kultur aniztasuna, genero ber-

dintasuna, diskriminazio eza, pluralismoa, kohesio soziala, eskuragarritasuna eta garapen jasangarria.

2. Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, herritarren kultur eskubideak hauek dira, haiek erabiltzeko modua zein den ere, banaka nahiz taldeka:

a) Norberaren kultur identitatea libreki aukeratzeko eskubidea, kultur erkidego bateko edo baztuetako kide izatekoa, eta hautaketa hori errespetatua izatekoa, kultur aniztasunerako eskubidea babestuta egon dadin.

b) Norberak aukeratutako hizkuntzan iritzi eta adierazpen askatasuna izateko eskubidea, Nafarroako hizkuntza ofizialen gaineko araudian xedatutakoa ukatu gabe.

c) Nafarroako Administrazio Publikoek ematen dituzten kulturarako eta kultur ondasun eta zerbitzuetarako irispina libreki eta parekotasunez izateko eskubidea.

d) Sorkuntza artistiko, zientifiko eta teknikorako eskubidea, eta talentuaren eta sormen gaitasunaren garapenerako, bai eta horien emaitzak zabaldu eta banatzekoa ere.

e) Kultur bizitzan libreki parte hartzeko eskubidea norberak aukeratutako jardueren bidez, norberaren kultur jardunbideak gauzatzekoa, sormenez jokatzekoa eta sormen jardueretan parte hartzekoa.

f) Foru lege honetan aitortzen diren eskubideetan eragina izan dezaketen erabakiak hartzeko prozesu garrantzitsuetan modu aktibo eta informatuan libreki parte hartzeko eskubidea.

g) Nafarroako kultur ondare material eta immaterialerako irispidea libreki eta parekotasunez izateko eskubidea, ondare horren titulartasuna zein den ere, baita haietaz gozatzekoa ere, eta norbere erkidegoarekin elkarlanean aritzeko eskubidea ere ondare hori berreskuratu, ikertu, babestu, zaindu, zabaldu eta sustatzeko eta haien balioa nabarmentzeko zereginetan.

h) Herri kulturak eta kultura tradizionalak ezagutzeko eskubidea.

i) Memoria kulturala eta historikoa berreskuratzeko eskubidea.

j) Foru lege honetan aitortzen diren kultur eskubideak eraginkortasunez erabiltzeko informazio garrantzitsua jasotzeko eskubidea, bai eta kultur arloko informazioa eskatzekoa ere, gardentasunaren eta informazio publikorako irispidearen gaineko araudian ezarritako baldintzetan.

k) Kultur informazioa sortu eta zabaltzeko eskubidea, sortzaileen eta egileen eskubide ukaezinak errespetatuz betiere.

l) Norbere literatur, arte eta zientzia ekoizpen lanek eragindako egile-eskubide ukaezinak babestuta izateko eta haietaz gozatzeko eskubidea, arloaren gaineko araudiarekin bat.

3. Foru lege honetan aipatzen diren eskubideak bertan eta aplikatzekoak diren gainerako arau eta xedapenetan ezarritakoarekin bat erabiliko dira, Konstituzioak, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babeserako Europako Hitzarmenak eta eskubide eta askatasunei buruzko nazioarteko itun eta akordioek, Estatuak sinatutakoek, ezarritzen dituzten mugen barruan.

**5. artikulua.** Kultur eskubideen bermea eta sustapena.

1. Foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitako baldintzetan, Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek bermatuko dute kultur eskubideak osotara eta libreki erabiltzea egiazko berdintasuneko araubidean, eta horretarako behar diren neurriak hartuko dituzte, izaera positiboa eta sustatzeko helburua dutenak barne.

2. Beharrezkoa denean, legezkotasuna berrezartzeko neurriak eta zehapen araubidea aplikatuko dira, kultur ondareari, artxiboari eta agiriari eta museo eta bilduma museografiko iraunkorrei buruzko foru araudian eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoak.

## II. TITULUA

### Kulturarako irispidea izateko eta kultur bizitzan parte hartzeko eskubidea

#### I. KAPITULUA

##### Kulturarako irispidea izateko eskubidea

**6. artikulua.** Kulturarako irispidea.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek begiratu dute kulturarako irispidea eta kultur bizitzan parte hartzea egiazko berdintasunez gauzatzen direla, jatorriak, etniak, erlijioak, ideologiak, sines- teek, generoak, sexu orientazioak, desgaitasunak edo beste edozein ezaugarri pertsonal edo sozia- lek eragindako diskriminaziorik gabe.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek baldin- tza egokiak sustatuko dituzte pertsonaren eta tal- deen askatasuna eta berdintasuna errealak eta egiazkoak izan daitezen kulturarako irispideari eta kultur bizitzan parte hartzeari dagokienez, eta horiek erabatekoak izatea zailtzen edo eragozten

duten oztopoak kenduko dituzte. Horretarako, herritarrek kulturarako irispidea izatea eta kultur bizitzan parte hartzea sustatuko dute, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, positiboak barne, pertsona eta talde ahulen eta desgaitasuna dutenen inklusioa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko.

#### **7. artikulua.** Kulturarako irispide fisikoa.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek bermatu beharko dute, modu progresiboan, kultur zentroetan, museoetan, artxiboetan, liburutegietan, antzokietan, auditorioetan, kultur ondareko ondasunetan eta, oro har, kultur ekipamendu orotan, irispide fisikoa, psikikoa eta sensoriala aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera izatea.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek behar den informazio eguneratua emanen diete herritarrei arestian aipatutako toki, zentro eta gunetarako irispiderako baldintzei buruz. Informazio horretan agertuko da gutxienez jendearentzat irekita egoteko ordutegia, ordaindu beharreko prezioa, baldin badago, eta eskura dauden zerbitzu osagarriak.

3. Herritarrentzako informazio eta arreta euskarari buruzko araudian eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoan xedatutakoarekin bat emanen dira.

**8. artikulua.** Kulturarako irispide birtuala. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek lagunduko dute informazio teknologiak erabil daitezkeen kulturarako irispidea izateko, eta kultur zentroeiei, museoiei, artxiboiei, liburutegiei, antzokiei, auditorioei, kultur ondareko ondasunei eta, oro har, kultur ekipamendu orori buruz behar den informazio eguneratuaren zabalkundea teknologia horien bidez egin dadin. Horrek bere baitan hartzen du kulturaren ikuspegitik garrantzi berezia duten toki, eraikin edo guneen bisita birtualak, batez ere horietarako sarbide fisikorako muga espezifikoak daudenean.

2. Herritarrentzako informazioa eta arreta 7. artikuluko 3. apartatuan adierazitako baldintzetan eginen da.

3. Kultura arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Kulturaren Atari Digitala sustatuko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko zerbitzu publiko gisa, herritarrek haren bitartez eskura dezaten kultur informazioa eta dokumentazioa, eta Nafarroako kultur esparru digitala garatu eta sendotzen laguntzeko helburuarekin.

4. Nafarroako Kulturaren Atari Digitalak irisgarritasun unibertsalaren irizpideak beteko ditu.

5. Ulertzen da artikuluko honetan xedatutakoak ez dituela baztertzeko gardentasunaren gaineko araudiak aipatzen duen Gobernu Irekiaren Atarieren bidez bideratzen diren zerbitzuak.

#### **9. artikulua.** Kultur bitartekaritza.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek kultura eta arte bitartekaritzako prozesuak jarriko dituzte eskura, herritarrek arte eta kultur adierazpenen kultur kodeetarako irispidea izaten laguntzeko, eta haiek ezagutu eta ulertzearekin lotzeko, bai eta herritarren eskura jartzeko kultur ekoizpenak behatu eta haietaz gogoeta egitea ahalbidetzen duten baliabideak ere.

2. Kultur eragileek tresnak eta ekintzak sustatuko dituzte lanak eta edukiak beren testuinguruetan ulertzea ahalbidetzeko, eta herritarrek esanahien eraikuntzan parte har dezaten laguntzeko.

## **II. KAPITULUA**

### **Kultur adierazpenetarako irispidea**

**10. artikulua.** Nafarroako Kultur Ondareko ondasunak.

1. Pertsona orok du eskubidea Nafarroako Kultur Ondarea berdintasunez gozatzeko, ondasunen zainketa eta babes beharrak errespetatuz.

2. Nafarroako Kultur Ondareko ondasunen jabe edo edukitzaile diren pertsonak edo entitateek, horretarako titulua edozein dela ere, betebeharrak hauek dituzte:

a) Interes kulturalaren deklarazioa duten ondasunetan eta ondasun higiezin inbentariatuetan jendearen doako bisitarako baimena ematea, hilean lau egunez gutxienez eta lau orduz egunean gutxienez, aurrez adierazitako egun eta orduetan. Interes kulturalako ondasun higigarriak dagokienez, arestian aipatutako betebeharrak horren ordean gordailua egiten ahalko da kultura arloko departamentu eskudunak ikusgai jartzeko erabakitzen duen zentroan, edozein tituluren bidez kasuko eskubideen jabe edo edukitzaile direnek hala eskatuta.

b) Interes kulturalako ondasun higigarriak mailerik altuena Nafarroako Administrazio Publikoek antolatu edo sustatutako aldi baterako erakusketa publikoetarako.

c) Behar bezalako egiaztatzea duten ikeritzaileei baimena ematea Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroan inskribatuta dauden ondasunetarako sarbidea izan dezaten, horretarako eskaera arrazoitua egin ondoren; eskaera horri

uko egiten ahalko zaio soilik horretarako arrazoiak daudenean, kultur arloko eskumena duen departamentuak arrazoi horiek egiaztatu ondoren. Ondasun higigarriei dagokienez, betebeharrak horren ordeztuz, kultur arloko eskumena duen departamentuak adierazitako zentroan uzten ahalko dira, edozein tituluren bidez ondasunaren jabe edo edukitzaile direnek hala eskatuta.

3. a), b) eta c) letretan aipatzen diren mailegu eta gordailuak, gehienez ere, 60 egun naturaletan egiten ahalko dira urtean.

4. 2. apartatuan ezarritako betebeharrak kentzen ahalko du kultura arloko eskumena duen departamentuak, salbuespen gisa, osorik edo hein batean, ofizios edo interesa duten pertsonak edo entitateak hala eskatuta, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik; arrazoi horietako bat izan da pertsonen segurtasuna bermatzea, edo kultur ondasunaren zainketa.

5. Kultura arloko eskumena duen departamentuak jendearen bisitetarako egutegiak eta ordutegiak onetsiko ditu, eta haien berri emanen du modu egokian. Horretarako, ondasunen jabe edo edukitzaile diren pertsona edo entitateei eskatuko die proposamenak egiteko, departamentuak ezarritako epe eta baldintzetan.

6. Nafarroako Administrazio Publikoek, kultur ondareari eta ondare hori osatzen duten ondasunen balioei zabalkundea ematearen arloan dituzten eginkizunak betetzeko, informazioa helaraziko diete herritarrei, tokian bertan, ondasun horien kultur esanahiaz eta araudian aurreikusitako babes kategorietako batean sartzeko arrazoiez.

#### **11. artikulua.** Ondare immateriala.

1. Pertsona guztiak dute eskubidea Nafarroako ondare immaterialaren parte diren ondasunetarako irispidea izateko eta haien esanahia ezagutzeko, ikerketarako izan edo ez, eta ondasun horiek Nafarroako Ondare Immaterialaren Inbentarioan sartuta egon edo ez. Eskubide horren erabilera bat etorri beharko du Kultur Ondare Immaterialaren Babeserako UNESCOk egindako Printzipio Etikoekin.

2. Kultur arloko eskumena duen departamentuak toki entitateekin, elkarteekin eta artikuluekin aipatzen diren ondasunen titularrekin elkarlanean arituko da ondasun horien zabalkundea egiteko, ezagutzera emateko eta haien balioa nabarmentzeko, batez ere Nafarroako Ondare Immaterialaren Inbentarioko dokumentazioaren bidez eta herritarrei eduki horietarako irispidea errazteko neurriak ezarriz.

3. Kultur arloko eskumena duen departamentuak lagunduko du herri kulturak eta kultur tradizionalak, oro har, eta, bereziki, haien molde eta adierazpide guztiak garatzen, sektoreko entitateekin lankidetzan, garapen hori ahalik eta onena izan dadin, eta ahaleginduko da agerian uzten landa munduak eta mundu urbanoak, biak ala biak, kultura horiek sortzen, zaintzen eta adierazten parte-hartzen dutela.

4. Nafarroako herri kulturen eta kultura tradizionalen adierazpenen pizgarri diren eta haien balioa nabarmentzen duten tokiko ekimenak sustatuko dira, berariazko deialdien bidez, eta berariazko programak sortzeko laguntza emanen da.

#### **12. artikulua.** Artxiboak eta Dokumentu-ondarea.

1. Pertsona guztiak dute eskubidea Nafarroako Dokumentu-ondarearen parte diren ondasunak kontsultatzeko, ezagutza eta ikerketa helburuak izanik, ondasun horiek Nafarroako Artxiboaren Sistemaren sartuta egon edo ez.

2. Nafarroako titulartasun pribatuko Dokumentu-ondarerako irispidea bermatzeko, helburua ezagutza edo ikerketa izanik, ondasun horien jabe edo edukitzaile diren pertsonak edo entitateak foru lege honen 10. artikuluko 2. apartatuan adierazitako betebeharrak izanen dituzte, eta, horiek beteitzearen ordeztuz, dokumentuen gordailua egiten ahalko dute Nafarroako Errege Artxibo Nagusian.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak digitalizatu egiten ditu Nafarroako Dokumentu-ondarearen parte diren titulartasun publikoak dokumentuak.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du Nafarroako Dokumentu-ondarearen parte diren titulartasun pribatuko dokumentuen digitalizazioa, eta horretarako laguntza emanen, horietarako irispidea errazteko, batez ere Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren bidez. Titulartasun pribatuko dokumentuen digitalizazioa zuzeneko kontsultaren edo gordailuaren ordeztzea izanen da, salbu eta interesdunek frogatzen badute dokumentuetara sartu beharra dutela ezagutza edo ikerketa arrazoiengatik; kultura arloko eskumena duen departamentuak egiaztatu beharko ditu arrazoi horiek.

#### **13. artikulua.** Museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak eta arte plastikoak.

1. Pertsona guztiak dute eskubidea Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroan inskribatutako museo eta bilduma museografikoetan sarbidea izateko, foru lege honetan ezarritako baldintzetan.



Aurreko paragrafoan xedatutakoa ukatu gabe, aitortu eta Erregistroan inskribatu diren museo eta bildumetan dauden ondasunen jabe edo edukitzaile diren pertsonak edo entitateek foru lege honen 10. artikuluko 2. apartatuan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

2. Bisitarako ohiko ordutegiez gain, artikuluhonetan aipatzen diren museo eta bilduma museografiko iraunkorretarako sarbidea doakoa izateaz honakoa ezartzen da:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko museoetan eta bilduma museografiko iraunkorretan doako bisita egun bat izanen da astean behin, jende guztiarentzat.

b) Museoei eta bilduma museografiko iraunkorrei Nafarroako Aurrekontu Orokorretako partida izendunen bidez ematen zaizkien diru-laguntzen oinarri arautzaileetan dohainik sartzeko ordutegia ezarriko da, jende guztiarentzat, zentro horiek irekitzeko ordutegiak kontuan hartuta.

c) Jende guztiarentzako doako bisitarako ordutegia irizpide bezala baloratuko da museoei eta bilduma museografiko iraunkorrei jarduteko diru-laguntzak emateko garaian.

3. Kultur arloko eskumena duen departamentua elkarlanean arituko da artikuluhonetan aipatzen diren museoen eta bildumen titularrekin, batez ere bildumen digitalizazioa egiten, bisita birtualen arloan eta beste baliabide tekniko batzuekin egin daitezkeen jarduera guztietan, mota guztietako bisitarien instalazio eta edukietarako irispidea izan dezaten errazteko.

4. Arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko xedeaz, kultur arloko eskumena duen departamentuak prestakuntza, esperimentazioa eta ikerketa sustatuko ditu haien lengoia guztietan.

#### **14. artikulua.** Liburua eta liburutegiak.

1. Pertsona guztiek dute eskubidea Nafarroako liburutegi publikoetako oinarrizko zerbitzuetarako irispidea izateko, Foru Komunitateko liburutegien sistemaren gaineko araudian ezarritako baldintzetan.

2. Kulturarako irispidea izateko eskubidea egiazkoa izaten laguntzeko, Nafarroako Gobernuak irakurketa sustatzeko planak egin eta garatuko ditu; aldizka ebaluatu eta eguneratuko dira plan horiek, aurrekontuko zuzkidura egokia esleituzaie, eta berrikuntza teknologikoetara moldatuko dira.

Irakurketaren sustapenerako planek arreta berezia emanen diete haur eta gazteei, irakurtzeko ohitura sendotzeko, bai eta gizartean egoe-

ra ahulagoan dauden sektoreetan daudenen, desgaitasuna dutenen eta migratzaileen beharrei ere.

3. Kultur arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Ondare Bibliografikoaren parte diren titulartasun publikoko funts bibliografikoak digitalizatuko ditu.

4. Kultur arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Ondare Bibliografikoaren parte diren titulartasun pribatuko funts bibliografikoen digitalizazioa sustatuko du, eta horretarako laguntza emanen, horietarako irispidea errazteko, batez ere Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren bidez. Titulartasun pribatuko funts bibliografikoen digitalizazioa zuzeneko kontsultaren edo gordailuaren ordezkia izanen da, salbu eta interesdunek frogatzen badute dokumentuetara sartu beharra dutela ezagutza edo ikerketa arrazoiengatik; kultura arloko eskumena duen departamentuak egiaztatu beharko ditu arrazoi horiek.

5. Kultur arloko eskumena duen departamentuak agiri irisgarriak izanen ditu, eta, horretarako, desgaitasunaren arloko entitate espezializatuekin arituko da elkarlanean.

**15. artikulua.** Nafarroako Zinemateka, zinemagintza eta ikus-entzunezkoak.

1. Nafarroako Zinemateka kultur arloko eskumena duen departamentuaren menpe egonen da, eta, besteak beste, eginkizun hauek izanen ditu zinemagintza eta ikus-entzunezko jarduerarekin lotuta:

a) Ondare zinematografikoaren zabalkunde lana, zikloak eta saioak antolatuz edo zinemagintzarekin loturiko bestelako adierazpenen bitartez, irabazi-asmorik gabe betiere; haren edizio lana, zeinahi euskarritan, eta zinemaren kulturaren zabalkunderako egokitzat jotzen diren jarduera guztiak.

b) Nafarroako Foru Komunitatean dagoen ondare zinematografikoa, ikus-entzunezkoa eta zinemagintzari loturiko beste zeinahi elementu babestu, berreskuratu, zaindu, zaharberritu, dokumentatu eta katalogatzea.

c) Euskarri orotako filmen eta ikus-entzunezko lanen artxiboa zaindu eta babestea, bai eta oro har funts zinematografiko guztiak ere, hala bere jabetzakoak, nola jatorria lege-gordailu, borondatezko gordailu, dohaintza, jaraunspen edo legatuetan dutenak.

d) Arlo honetan organo eskudunak ematen dituen diru-laguntza publikoen onuradunek entregatu behar dituzten zinema lanak edo ikus-entzunezkoak zaindu eta babestea, baita horien

zabalkundea egitea ere, ezartzen diren baldintzetan.

e) Ikerketak eta azterlanak egitea eta sustatzea, arreta berezia emanez Nafarroako filmografiari.

f) Elkarlanean aritzea autonomia erkidegoetan ezarritako zinematekekin, haien jardueretan, bai eta Zinemateka Nazionaleko, Film Artxiboaren Nazioarteko Federazioaren eta beste batzuen parte direnekin ere.

2. Kultur arloko eskumena duen departamentuak eginkizun hauek izanen ditu ikus-entzunezkoen sektoreari dagokionez:

a) Ikus-entzunezko kultura sustatu eta zabalteko planak egin eta garatuko ditu; aldizka ebaluatu eta eguneratuko dira plan horiek, aurrekontu zuzkidura egokia esleituko zaie eta berrikuntza teknologikoetara moldatuko dira.

b) Navarra Film Commission erakundearen bitartez, Nafarroan lan egiteko behar duten informazioa emanen die ikus-entzunezko sektoreko enpresa eta profesionali, naziokoei nahiz nazioartekoei, eta, horrekin batera, aholkularitza integrala lokalizazioak aurkitzeko, ekoizpeneko logistikan eta behar duten beste edozein zerbitzutan.

Era berean, Nafarroako enpresa eta profesionalen nazioarteratzea eta kanpoko proiektzioa sustatuko ditu, bai eta beste lurralde batzuekiko aliantzak ere, ikus-entzunezkoen sektoreko beste eragile batzuekin lankidetzan.

c) Ikus-entzunezko sorkuntza, adierazpide guztietan, sustatuko duten planak eta programak bultzatuko ditu, bereziki zinemaren eta ikus-entzunezkoen arloko lengoaiaren eboluzioa dakarten proposamen berritzaileak ikusgai jartzen dituztenak.

d) Ikus-entzunezkoen arloko ikuskera desberdinen zabalkundeari lagunduko dioten jaialdiak edo lehiaketak antolatu edo sustatuko ditu.

#### **16. artikulua.** Arte eszenikoak eta musika.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek, arte eszenikoaren eta musikaren sektoreen arte eta kultur adierazpideen gozamena bermatzeko, eginkizun hauek izanen dituzte beren eskumenen barruan:

a) Arte eszenikoaren eta musikaren sektoreek Nafarroako Foru Komunitateko arlo horietako kultur politikak diseinatu eta garatzen parte har dezaten sustatuko dute.

b) Gizartean arte eszenikoek eta musikak prestigioa har dezaten begiratuko dute, berez balio handia duten adierazpide soziokulturalak eta artistikoak diren aldetik, eta sustatuko dute haien praktika, ikusle eta entzuleen prestakuntzari begira duen garrantziari arreta emanez bereziki.

c) Arte eszenikoaren eta musikaren sustapenerako programak diseinatuko dituzte, eta arte lengoia garaiak berrien zabalkundean lagunduko dute.

d) Jaialdiak edo lehiaketak antolatu edo sustatuko dituzte, bai eta unean uneko kultur adierazpideak ere, kultur ikuskera desberdinen zabalkundeari laguntzeko.

e) Arte eszenikoaren eta musikaren sorkuntzari eta ekoizpenari laguntzeko bideak ezarriko dituzte, horien artean zuzendaritza artistikoak eskura jartzea eta gune eszenikoak eta baliabideak uztea bertan egoitza duten konpainientzat eta sormen edo ikerketa proiektuak garatzeko Nafarroan egonaldi artistikoak egiten dituztenentzat.

f) Arte eszenikoaren garapena bultzatuko dute, lan eta ikuskizun eszenikoak sortzea nahiz horien sustapena eta zabalkundea egitea, eta, horrekin batera, banaketa egokia izan dezaten, sustapen plan berriazkoen bidez.

g) Elkarlanean arituko dira emanaldietarako sareak diseinatzeko eta mantentzeko, arreta berezia emanez Nafarroako sorkuntza lanei, horrela arte eszenikoaren eta musikaren programazioa ziurtatzeko Nafarroako udalerrietan, formatuak eta ikusle motak kontuan hartuz, emanaldietarako guneak bilduko dituen sare egoki eta dibertsifikatu baten bidez.

2. Zehazki, kultura arloko eskumena duen departamentuak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Sorkuntzarako, ekoizpenerako, emanaldiak egiteko, banaketarako eta zabalkunderako berriazko laguntza larriak garatuko ditu, bai eta ikerketarako eta elkarteak sortzeko ere, eta, horretarako, eskaintzaren aniztasuna eta ikuslearen eskakizunak eta beharrak bultzatuko ditu.

b) Nafarroako arte eszenikoaren eta musikaren sektoreei buruzko informazio iturriak izaten saiatuko da, lehen nahiz bigarren mailakoak, joerei buruzko azterketak egiteko.

c) Nafarroako arte eszenikoaren eta musikaren ondarea osatzen duten ondasun materialen eta immaterialen zainketa eta haiei buruzko ikerketa bultzatuko ditu.

**17. artikulua.** Kultur eta sorkuntza ekosistema.

Foru lege honen ondorioetarako, kultur eta sorkuntza ekosistema profil desberdineko (artistikoak, zientifikoak eta teknikoak) partaideak dituen harreman-ingurunea da, mota desberdinetako eredu bidez sormena eta berrikuntza hedatzen dituen.

Pertsona guztiek dute eskubidea kultur eta sorkuntza ekosistemak eragiten dituen eta kultur politiken esparruan sustatzen diren adierazpideetarako irispidea izateko eta haiez gozatzeko; eskubide hori bermatzeko, kultur arloko eskumena duen departamentuak eginkizun hauek izanen ditu:

1) Kultur eta sorkuntza ekosistemaren berri izaten lagunduko du, Nafarroako Foru Komunitatean horri buruzko mapaketak eginez.

2) Kultur eta sorkuntza ekosistema ikuspuntu sozialetik, ekonomikotik eta prestakuntzakotik ezagutzeko behar diren azterlanak sortuko ditu.

3) Kultur proiektu eta prototipoak sortzea sustatuko du, norgehiagokako prozedura erabiliz.

4) Kultur eta sorkuntza ekosistemak espezializazio adimentsuaren estrategietan edo sortzen diren bestelako plan eta estrategietan tokia izan dezan sustatuko du, batez ere estrategia horien alderdi ekonomikoa, teknologikoa, kulturala eta soziala bere baitan biltzen dituen kultur politika baten barruan.

5) Zabalkunderako eta ezagutzera emateko behar diren ekintzak antolatu eta bultzatuko ditu.

6) Kultura komunalaren eta librearen alde egiten du eta horiek sustatuko ditu.

**18. artikulua.** Kultur ekipamenduak.

1. Pertsona guztiek dute eskubidea Nafarroako Administrazio Publikoetako kultur ekipamenduetan gauzatzen diren adierazpide eta ekitaldi kulturalak sustatzen dituzten zerbitzu, programa eta jardueretarako irispidea izateko.

2. Kultur arloko eskumena duen departamentuaren kultur ekipamendu berri guztiek izan behar dute bideragarritasun plan bat eta Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak emandako nahi-taezko txosten bat.

3. Kultur arloko eskumena duen departamentuak udalen kultur ekipamenduak eraikitzen eta hornitzen lagunduko du, lurraldean banaketa orekatua izan dezaten, proportzionaltasun irizpideekin eta kokatuta dauden toki entitatearen errealitatearekin bat etorriz.

4. Nafarroako Administrazio Publikoek sustatuko dute erabiltzen ez diren titulartasun publikoko gune batzuk erabilgarri egotea bertan arte eta kultur sorkuntza bultzatzen duten ekimenak garatzeko; berrikuntza ere bultzatuko dute kudeaketa ereduetan.

5. Kultur arloko eskumena duen departamentuak lagunduko du mapaketak egiten, joeren diagnostikoa eta azterketak egiteko baliagarriak izanen direnak, Nafarroako kultur ekipamenduen kasuan nahiz arte eta kultur sormena bultzatzen duten guneen kasuan.

6. Kulturaren eta arteen arloko ekipamenduek irisgarritasun unibertsalaren gaineko araudiak esparru horietan ezartzen dituen eskakizunak bete beharko dituzte.

**III. KAPITULUA****Kultur bizitzan parte hartzea eta erabakiak hartzea****19. artikulua.** Kultur bizitzan parte hartzea.

1. Kultur bizitzan parte hartzeko eskubideak berekin dakar pertsona orok, berez, beste batzuekin batera edo erkidego bateko kide gisa, libreki esku har dezakeela erkidegoaren kultur bizitzan, bere kultur praktikak gauzatu, hautatuko hizkuntza erabili, eta kultur ezagutzak eta adierazpideak garatu eta beste batzuekin partekatu.

2. Kultur bizitzan parte hartzeko eskubideak bere baitan hartzen du norbere erkidegoaren nahiz beste erkidego batzuen kultura ezagutu eta hautatzeko askatasuna.

3. Kultur bizitzan parte hartzeko eskubideak berekin dakar, halaber, pertsona orok egin dezakeela bere ekarpena erkidegoaren adierazpide material eta intelektualak sortzen, baita parte hartu ere kide den erkidegoaren garapenean.

**20. artikulua.** Erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea.

1. Gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta gobernu irekiaren gaineko araudiaren esparruan, parte hartzeko bideak aurreikusten dituzten beste arau batzuetan xedatutakoa ukatu gabe, herritarrek eskubidea dute kultur bizitzan libreki parte hartzeko, kultur arloko politika publikoekin, haiei eragiten dietenekin, lotutako erabakiak hartzeko prozesu garrantzitsuetan esku hartuz, beren kultur eskubideez baliatuz.

Nafarroako Administrazio Publikoek bultzatuko dute herritarrek eskubide hori erabil dezaten.

2. Erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko eskubidea banako gisa nahiz kultur eta

sorkuntzako adierazpideak eta kultura sustatzeko helburua duten elkarte, erakunde eta entitateen ordezkari gisa erabiltzen ahalko da.

### III. TITULUA

#### Arte eta literatur sorkuntza eta ikerketa zientifikoa

##### I. KAPITULUA

###### Sorkuntzarako eta ikerketarako askatasuna

**21. artikulua.** Arte eta literatur sorkuntzarako askatasuna.

Antolamendu juridikoarekin bat, pertsona guztiek dute eskubidea arte eta literatur ekoizpeneko eta sorkuntzarako, bai eta beren sormen-lanak aukeratzen dituzten lengoaiak, kodeak eta formatuak erabiliz adierazi edo gauzatzeko ere.

**22. artikulua.** Ikerketa zientifikorako askatasuna.

Antolamendu juridikoarekin bat, pertsona oro baliatu daiteke ikerketa zientifikorako askatasunaz, aukeratzen duen jakintza arlo eta eremuetan.

**23. artikulua.** Aurrerapen zientifikoaren onurez gozatzeko eskubidea.

Antolamendu juridikoarekin bat, pertsona orok du eskubidea aurrerapen zientifikoaren eta haren aplikazioen onurez gozatzeko.

**24. artikulua.** Egile eskubideak.

Antolamendu juridikoarekin bat, pertsona orok du eskubidea norberak egindako literatur, zientzia edo arte ekoizpenen kariaz dagozkion eskubide ukaezinak gozatu eta babesteko; eskubide horren helburua da arte eta zientziei eta gizartearen kultur aurrerapenari ekarpen aktiboa egin dadin sustatzea.

##### II. KAPITULUA

###### Administrazio Publikoek arte sorkuntza eta ikerketa zientifikoa sustatu eta hedatzea

**25. artikulua.** Administrazio Publikoak eta arte eta literatur sorkuntzaren eta ikerketa zientifikoaren sustapena eta hedapena.

Nafarroako Administrazio Publikoek jardunaldiak, biltzarrak, jaialdiak edo beste edozein ekitaldi egitea sustatuko dute, arte eta literatur sorkuntza eta ikerketa zientifikoa bultzatu eta hedatzeko.

**26. artikulua.** Ikerketa zientifikorako laguntza.

Nafarroako Administrazio Publikoak elkarlanean aritzen ahalko dira ikerketa zientifikoan aritzen diren erakunde akademikoekin; horrela, ikerketa

zientifikorako ezinbestekoa den askatasuna begiratuko dute, eta, beraz, ikertzaileen jarduna betetzean esku-sartzeak edo interferentziak eragoztiko. Horretarako, ekitaldi zientifikoak diruz laguntzen ahalko dituzte, hala nola biltzarrak, jardunaldiak, hitzaldi zikloak edo mintegiak, ikerketa proiektuak, liburuen eta aldizkarien argitalpena, edo zientziaren zabalkunderako beste edozein.

**27. artikulua.** Aurrerapen zientifikoaren onurak sustatzea.

Nafarroako Administrazio Publikoek aurrerapen zientifikoaren eta haren aplikazioen onurez gozatzeko dute, kultur bizitzan parte hartzeko eskubidearekin lotuta. Horretarako, herritarrek zientziaren eta haren aplikazioen onurarako irispidea izatea sustatuko dute, jakintza zientifikoa barne, Liburutegien Sarearen, Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren eta beste tresna batzuen bitartez.

**28. artikulua.** Kultur arloko eskumena duen departamentuak sustatutako jardunaldi akademikoak eta zabalkundekoak.

Kultur arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako kulturari buruzko ikerketa hedatzeko bideak jarriko ditu, biltzarrak, jardunaldiak, hitzaldi zikloak edo mintegiak antolatuz, ikusle espezializatuei zuzenduta nahiz zabalkunderako.

**29. artikulua.** Kultur arloko eskumena duen departamentuak sustatutako argitalpenak.

Kultur arloko eskumena duen departamentuak formatu desberdinetako argitalpenak sustatuko ditu Nafarroako kulturari eta giza eta gizarte zientziei buruzko emaitzak zabaltzeko, bide hauek erabiliz, besteak beste:

a) Artikuluak argitaratuz aldizkari espezializatu hauetan: "Príncipe de Viana", "Fontes Linguae Vasconum", "Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra", "Trabajos de Arqueología de Navarra", baita etorkizunean sor daitezkeen beste batzuetan ere, kultura librearen printzipioak aplikatuz.

b) Monografiak argitaratuz.

##### IV. TITULUA

###### Administrazio Publikoen erantzukizuna kultur arloan

**30. artikulua.** Gardentasuna eta jardunbide egokiak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen kultur arloko jarduna bat etorriko da jarduera publikoaren gardentasunaren gaineko araudiarekin, eta, antolamendu juridikoan xedatutakoaren esparruan, jar-

dunbide egokiak ezarriko ditu kontratazioaren eta diru-laguntzen arloan, baita jarduerarako babes eta pizgarri izanzen diren beste neurri batzuk ere.

2. Bereziki, Nafarroako Administrazio Publiko- en kultur arloko jarduketak diskriminaziorik ezaren eta kultur eskubideen berme eta eraginkortasunaren printzipioak beteko ditu.

3. Kultur arloko eskumena duen departamentuak jardunbide egokien kodea egin eta erabiliko du.

**31. artikulua.** Kultur sektoreen profesionalizazioa.

Kultur arloko eskumena duen departamentuak, kultur sektoreetan lan egiten dutenen profesionalizazioa bermatzeko helburuz, eginkizun hauek beteko ditu:

a) Sektoreei dagozkien lanpostuen aitortza bermatzeko behar diren neurriak sustatuko ditu, eta, halaber, lanpostu hauen trebakuntza eta espezializazioa: kudeatzaileak, liburuzainak, artxibozainak, sustatzaileak, ikertzaileak, bitartekariak, teknikariak eta kultur sektoreetako beste batzuk.

b) Berak bakarrik edo beste entitate batzuekin elkarlanean, kultur eragileentzako prestakuntza eta trebatze ekintzak bultzatuko ditu, desafio berriei erantzun kualifikatua emateko eta kultur sektoreen garapen iraunkorra bermatzeko.

**32. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

1. Kultur arloko eskumena duen departamentuak beteko ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gai hauetan esleituak dituen eskumenak: kultur ondarea babestu eta handitzea; herritarrek kulturarako irispidea izatea; arte sorkuntza eta zabalkundea bultzatu eta sustatzea; foru lege honetan aitortutako eskubideak eraginkorrak direla eta legea betetzen dela begiratzea, horiek guztiak, betiere, Nafarroako Gobernuari dagozkion eskumenak eta Foru Komunitateko Administrazioiko gainerako departamentuekiko koordinazioa ukatu gabe.

2. Kultur arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako kultur garapena sustatuko du, eta kultur zerbitzuen, baliabideen eta jardueren kalitatezko kudeaketa eraginkorra bultzatuko; horrekin batera, horietarako irispidea berdintasunez izateko bideak jarriko ditu, eta bermatuko du pertsona guztiak baliatu ahal izatea Nafarroako Kultur bizi- tza libreaki parte hartzeko eskubideaz, aintzat hartuz, bereziki, Nafarroan bizi eta gizarteratzeko zailtasun gehien dituzten taldeak.

3. Bereziki, foru lege honen xede eta helburuak betetzeko, kultur arloko eskumena duen departamentuak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Koordinazio eta lankidetzaren harremanak ezarriko ditu Nafarroako Administrazio Publikoek atxikita edo menpean dituzten kultur arloko erakunde eta entitateekin.

b) Koordinazio eta lankidetzaren harremanak ezarriko ditu kulturaren sektoreekin lotura duten entitate, lanbide elkarte, fundazio eta gobernu kanpoko erakundeekin.

c) Koordinazio eta lankidetzaren harremanak ezarriko ditu kultur arloan eskumena duten autonomia erkidegoetako, estatuko, Europako edo nazioarteko beste erakunde eta sare batzuekin, kanpoan Nafarroako kulturari tokia egin eta zabalkundea emateko.

d) Nafarroako kanpo ekintzaren eta Foru Komunitateko kultur politikaren esparru orokorren barruan, jarduketak sustatuko ditu eta bere jarduerak koordinatuko ditu Nafarroaren proiektuari laguntzen dioten erakundeekin.

e) Ikertzaile, sustatzaile, kudeatzaile, teknikari, sortzaile, interprete eta egileen prestakuntza, eguneratze eta profesionalizaziorako neurriak eta programak sustatuko ditu kultur eta arte adierazpideen eremu desberdinetan.

4. Horrez gain, kultur arloko eskumena duen departamentuak:

a) Elkarlanean arituko da hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuarekin eginkizun hauetan:

i) Hezkuntza sisteman arte eta kultur irakaskuntzak sendotu eta handitzea.

ii) Kulturaren zeregina sendotzea hezkuntzaren arloan, eta, horretarako, haurtzarotik eta gaztaro- tik irispidea eta ezagutza ahalbidetuko duten ekimenak bultzatuko ditu, haur eta gazteen gaitasunak (kognitiboak, artistikoak eta sorkuntzakoak) garatzen laguntzeko bitartekoa izan dadin.

b) Elkarlanean arituko da turismo arloko eskumena duen departamentuarekin, kultur turismo jasangarria eta orekatua bultzatzeko, erkidegoen garapen ekonomiko eta sozialerako lagungarria izan dadin, kultur ondasun eta baliabideen babes egokia arriskuan jarri gabe etorkizuneko belaunaldiei begira.

c) Elkarlanean arituko da Nafarroako kultur, zientzia eta hezkuntza erakundeekin, herritarrek haien kultur informazio eta dokumentaziorako irispidea izatea errazteko.

d) Sustatuko du sortzaile, sustatzaile, iker-tzaile, kultur kudeatzaile eta herritarrek, oro har, parte har dezaten kultur arloko politikak zehazten, garatzen, aplikatzen eta haien eragina aztertzen. Horretarako, kultur arloko eskumena duen departamentuak parte-hartzerako plan eta ekintzak bultzatuko ditu.

e) Sustatuko du kultur sektoreek eta eragileek parte har dezaten kultur ekintzailtzari eta kulturaren garapen ekonomikoari lagunduko dioten estrategiak, neurriak eta pizgarriak diseinatzeko.

f) Nafarroako udalerriekin koordinazio eta ardurakidetzarako foro bat sortzea bultzatuko du, kultur arloko politiken artikulazioa bermatzeko.

g) Lan-mahaiak edo -foroak ezarriko ditu sustapen planak abian jartzeko kultur sektoreetan.

h) Aholkua eta laguntza emanen die Nafarroako toki entitateei kultur arloan.

i) Gizarteratzeko zailtasun gehien dituztenek kulturarako irispide eraginkorra izatea eta haien kultur adierazpideak egitea ahalbidetuko duten jarduketak egiten ditu.

j) Desgaitasunaren arloko erakunde eta entitate espezializatuarekin elkarlanean arituko da, aholku eman diezaioten irisgarritasun unibertsalarekin lotutako gaietan, foru lege honen aplikazio esparruan.

k) Oro har, foru lege honetan jasotzen diren eskubideak eta oinarriko printzipioak eraginkortasunez aitortu eta baliatzeko bide emanen duten ekintza guztiak.

### **33. artikulua.** Udalerriak.

1. Kultura sustatzearen arloan dituzten eskumenez baliatuz, udalerriek zeinek bere mugartean duen kultur ondarearen zabalkundea egiten dute, eta haren balioa nabarmenduko, ukatu gabe arlo horretan eskumena duen departamentuarekin elkarlanean aritzea hura babestu, areagotu eta transmititzeko.

Bereziki, kultur ondare immaterialari zabalkundea eta balioa ematea begiratuko dute, Nafarroako herri kulturak eta kultur tradizionalak beren testuinguru historiko eta kulturalean nahiz lurraldean kokatuz.

2. Kultura sustatzearen arloan dituzten eskumenez baliatuz, Nafarroako udalerriek kultur zerbitzu hauek sustatuko dituzte, besteak beste, bakarrik edo kide diren udalez gaitzeko entitateen bitartez:

a) Kultur aniztasuna eta kultur adierazpide edo agerpenen aniztasuna kontuan hartzen duten arte eta kultur jardueren programazioa.

b) Tokian tokiko arte eta kultur elkarteak sustatu eta laguntzea, eta herritarrek kultur arloan egindako proposamenak eta eskaerak jaso eta bideratzea.

3. Nafarroako udalerriek kultur ekintzarako planak prestatzen ahalko dituzte, kultur ohiturak eta praktikak sustatzeko.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoaz gain, Nafarroako udalerriak, bakarrik edo udalez gaitzeko entitateen bitartez, kultur ekipamenduen arloan dituzten eskumenez baliatuz, gertuko kultur ekipamenduak, langile profesionalak dituztenak, eta/edo sorkuntzarako gune kogestionatuak izateko neurriak hartzen saiatuko dira.

## **V. TITULUA**

### **Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua**

**34. artikulua.** Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua.

1. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua Foru Komunitateko Administrazioak kultur arloan duen kontsulta eta aholkularitzarako organoa da.

2. Kultur arloko eskumena duen departamentuari atxikiko zaio Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua; behar bezala aritzeko behar dituen laguntza eta bitartekoak emanen dizkio hark.

3. Hauek izanen dira Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nafarroako Foru Komunitateari aholku ematea kulturaren arloan.

b) Kultur arloko eskumena duen departamentuarekin elkarlanean aritzea arteen, ondarearen eta kulturaren esparruetan bere kultur politikak zehazten, gauzatzen eta ebaluatzen.

c) Arteei, ondareari, kulturari eta lurraldeari buruzko eztabaida eta ezagutza sortzea.

d) Kulturaren eta kultur politikaren arloan azterlanak eta txostenak egitea eta gomendioak helaraztea, bere ekimenez edo Foru Komunitateko Administrazioak eskatuta.

e) Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren eta kultur arloko eskumena duen departamentuaren ekintza planen jarraipena eta ebaluazioa.

f) Vianako Printzea Kulturaren Saria nori eman proposatzea Nafarroako Gobernuari.

g) Kultur arloko eskumena duen departamentuaren aurrekontu proiektua egiteko prozesuari

buruzko informazioa jasotzea, bai eta haren bete-arazpenaz ere.

h) Kultur ondarea babestu eta areagotzeko egoki iruditzen zaizkion ekimenak plazaratzea eta neurriak proposatzea.

i) Antolamendu juridikoak ematen dizkion gainerako eginkizunak betetzea, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak haren esku uzten dizkionak ere.

4. Nafarroako Arteen eta Kulturaren Kontseiluko kideak hauek izanen dira: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak, Nafarroako toki entitateenak, kultur entitateenak, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarenak, eta Kontseiluaren eginkizunen esparruan entzute handia, ezagutza espezializatua edo presentzia frogatua duten pertsonak. Kontseiluko lehendakaria kultur arloan eskumena duen departamentuko titularra izanen da.

Kontseiluaren osaketan genero parekotasuna bermatuko da.

5. Kideek beren eginkizunak betetzeagatik erregelamenduz ezartzen diren ordainsariak jasoko dituzte.

6. Erregelamenduz ezarriko da Nafarroako Arteen eta Kulturaren Kontseiluaren antolaketa, osaketa eta jarduna.

## VI. TITULUA

### Finantza eta tributuko arloko xedapenak

#### I. KAPITULUA

##### Kultur politiken finantzaketa

**35. artikulua.** Finantzaketa publikoa.

Kulturaren finantzaketa publikoa bermatzeko, Nafarroako Gobernuak aurrekontu kreditu egokia ezarriko du kultur arloko eskumena duen departamentuarentzat aurrekontu orokorrak prestatzean.

**36. artikulua.** Diru-laguntzak eta bestelako laguntzak.

Kultur arloko eskumena duen departamentuak diru-laguntzak ezarriko ditu urtero erabakitzen diren kultur sektoreetarako, foru lege honen 2. artikuluan aipatzen diren printzipioekin bat.

**37. artikulua.** Mezenasgoa.

1. Kultur arloko eskumena duen departamentuak kultur mezenasgoa ezagutarazten eta hedatzen lagunduko du, indarreko araudiaren barruan; horretarako, zeharkako kultur politika egitea hartu-

ko da oinarritzat, finantzaketa, mezenasen eta kultur sorkuntzaren artean proiektuen ikuspegi konpartitua eta gizarte zibilaren parte-hartzea eta ardurakidetzat lagunduko dituena.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek, bereziki, mikromezenasgoa sustatu eta bultzatuko dute.

**38. artikulua.** Kultur ekintzaitzarako funtsak eta krediturako irispidea.

Kultur arloko eskumena duen departamentuak, bakarrik edo Foru Komunitateko Administrazioaren beste departamentu batzuekin edo entitate batzuekin elkarlanean, funtsak edo bestelako finantza tresnak sortuko ditu kultur sektoreetako mikroenpresei eta enpresa txikiei kreditua ematea errazteko; kultur ekintzaitzeta sortu, garatu eta hedatzeko eta kultur ondasun eta zerbitzuak ekoizteko pizgarria izanen den beste edozein neurri ere hartzen ahalko du.

## II. KAPITULUA

### Zerga onurak

**39. artikulua.** Zerga onurak kultur eskubideen arloan.

Kultur eskubideen arloan aplikatzekoak izanen dira zergei buruzko legeetan ezartzen diren zerga onurak.

**40. artikulua.** Kultur mezenasgorako zerga pizgarriak.

Kultur mezenasgoaren gaineko araudiaren arabera interes sozialaren deklarazioa edo izaera duten kultur proiektuetan edo jardueretan parte hartzeak zergei buruzko foru legeetan ezartzen diren zerga onurak izanen ditu.

**41. artikulua.** Babesletza.

Interes sozialeko deklarazioa duten kultur jardueren babesletza-kontratuek eragindako publikizitate gastuek eskubidea emanen dute zergei buruzko foru legeetan aurreikusten diren kenkariak egiteko.

**42. artikulua.** Zinema ekoizpenak eta ikus-entzunezko serieak.

Zinema ekoizpenetan eta ikus-entzunezko serieetan egiten diren inbertsioek eskubidea emanen dute zergei buruzko foru legeetan aurreikusten diren kenkariak egiteko.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Zerbitzu-gutunak.

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, kultur arloko eskumena duen departamentuak zerbitzu-gutunak onetsiko ditu, eta bertan zehaztuko da zein diren prestazioak bere esku-

men esparruetan, haien kalitatea hobetzeko eta herritarren beharrei, gogoei eta eskaerei hobeki erantzuteko, bai eta, azkenik, foru lege honetan aitortzen diren kultur eskubideak baliatzea bermatzeko ere.

**Xedapen iragankor bakarra.** Nafarroako Kultura Kontseilua.

1. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera Nafarroako Kultura Kontseiluaren izena Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua izanen da.

2. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak foru lege honek esleitutako eginkizunak beteko ditu, eta, halaber, antolamendu juridikoak Nafarroako Kultura Kontseiluari esleitutakoak.

3. Antolamendu juridikoan Nafarroako Kultura Kontseiluaz egiten diren aipamenak aurrerantzean Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaz eginak direla ulertuko da.

4. Foru lege honek indarra hartzen duenean, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua gaur egun Nafarroako Kultura Kontseiluko kide direnek osatuko dute.

Gaur egungo kideen agintaldia amaitzen denean, Nafarroako Kultura Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta jardunbidea ezartzen dituen indarreko araudiarekin bat, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideak izendatuko dira foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, bereziki:

– Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 10. artikulua.

– Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 28. artikuluko b) eta c) letrak, 10. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. apartatuek indarra hartzen dutenetik aurrera, foru lege honen azken xedapenetako hirugarrenaren bigarren paragrafoarekin bat.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen 12. artikulua 1. apartatuak testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Hauek dira Nafarroako liburutegi publikoen oinarriko zerbitzuak: informaziorako irispidea izatea; aretoetan mota guztietako dokumentuak irakurri eta kontsultatzea, edozein euskarri eta formatutan, babes, zainketa eta osotasun berme egokiekin; dokumentuen mailegua, banakakoa, kolektiboa eta liburutegien artekoa; Interneterako eta lineako informazio zerbitzuetarako sarbidea.”

**Azken xedapenetako bigarrena.** Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatzeko arauak emateko eta foru lege hau betetzeko behar diren neurriak hartzeko.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Aurrekoa gorabehera, 10. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. apartatuek legea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera hartuko dute indarra.



## **Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 1ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Talde parlamentarioen zein foru parlamentarien elkarten eledunek eskatu dute Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko urriaren 15eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko irailaren 6ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira Konstituzioan hezkuntza dela-eta ezarritako askatasunak bermatu eta handitu ditzaten.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen baitira Konstituzioan hezkuntza dela-eta ezarritako askatasunak bermatu eta handitu ditzaten.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Espainiako 1978ko Konstituzioak aldi berean jasotzen ditu eskubide publiko subjektibo gisa irakaskuntza-askatasunerako eskubidea eta hezkuntzarakoa eskubidea, helburu garbi gisa edukirik, Konstituzioko bi printzipio, askatasuna eta berdintasuna, bateragarri egitea.

Ildo horretatik, Konstituzioak, 27.1 artikuluan, agindu nagusi bat ezartzen du, honela dioena: "Denek dute hezkuntzarako eskubidea. Aitortzen da irakaskuntzaren askatasuna".

Hezkuntzarako eskubidea, edo denek duten hezkuntzarako eskubidea, eratzen da 27. artikuluko horren aginduen arabera. Haien artean agertzen dira, halaber, gurasoen eskubidea, beren seme-alaben heziketa erlijioso eta morala beren sinesmen propioen araberakoa izan dadin daukatena (3. apartatua); pertsona fisiko eta juridikoek ikastetxeak sortzeko duten askatasuna, Konstituzioaren printzipioak errespetatzearen mugarekin (6. apartatua); guztiek irakaskuntzaren programazio orokorrean sektore ukitu guztiek parte hartzeko duten eskubidea (5. apartatua); eta oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa izateko eskubidea (4. apartatua). Halaber xedatzen da botere publikoek laguntza emanen dietela legeak jarritako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeei (9. apartatua).

Familiek beren seme-alabentzat nahi dituzten hezkuntza mota eta ikastetxea aukeratzeko askatasunak, beraz, konstituzio-babespeko eskubideak dira, bai Konstituzioaren bai Konstituzio Auzitegiak denboran zehar emandako epaien aldezpena baitute.

Gainera, 9. artikulua jasotzen du botere publikoek inguruabar zehatzak sustatzeko daukaten betebeharra, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezzen. Alde horretatik, finantzaketa zuzen eta egoki bat da irakaskuntza-askatasunerako eskubidearen gauzatzea ahalbidetzen duena. Kontu handian hartu behar dira gizarte-eskaeraren errealitatea eta behartsuenen beharrezan, halatan oinarrizko irakaskuntzaren erabateko doakotasuna ez dadin loturik egon irakaskuntza ematen duen ikastetxearen izaera juridikoa publikoa edo pribatua izatearekin, horrenbestez aukera-askatasunerako eskubidearen gauzatzea finkatu ahal izateko.

Ildo horretan, Auzitegi Gorenak berretsi duenez, 27. artikuluan onesten diren irakaskuntza-askatasunari buruzko eskubideak erabili ahal izateko, Estatuak funts publikoekin finantzatu behar ditu ikastetxe publikoez bestelako ikastetxe batzuk. Halaber dio 27. artikulua horren bidez bermatu egiten dela familiek ikastetxea egiazki aukeratzeko duten eskubidea, baldintza ekonomikoak aukera horretarako muga edo hertsapen ezin izanda.

Hain zuzen ere, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren hitzaurrean honela definitzen da Espainiako hezkuntza-sistema: “izaera mistoa edo bitariko duen sistema; sistema hori, gehienbat publikoa izan arren, zati handi batean pribatua ere bada”. Ondotik azaltzen duenez, Konstituzioak tankeratzen duen hezkuntza-esparrua konpromiso eta gizabidezkoa da, aurretiaz ezarrita zegoen sistema mistoa modu inplizituan aitortzeaz gain arau-esparru integratzaile bat eskaintzen duena, non hezkuntza-aukera desberdinek beren tokia izan baitute.

Horregatik ezarri zen hezkuntza-itunaren figura, zeinaren bidez, eta legeak ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikastetxe pribatuak funts publikoekin finantzatu, familiek aukeratzeko ahal baitute ez ikastetxe publiko desberdinen artekin bakarrik, baizik eta botere publikoek sustatutako ez bestelako gizarte-ekimeneko ikastetxeen artekin ere.

Beste alde batetik, Espainiako Konstituzioko 10.2. artikulua ezartzen du ezen Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei dagozkien arauak interpretatzeko orduan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari eta gai honetan Espainiak berretsiak dituen nazioarteko tratatu eta hitzarmenei begiratuko zaiela.

Ildo horretan, Giza Eskubideen Adierazpenaren 26.3 artikulua ezartzen du gurasoek lehentasunezko eskubidea izan behar dutela beren seme-alabei emanen zaien hezkuntza mota aukeratzeko. Halaber, Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunak hauxe dio: “Bermatu egiten dira demokraziako printzipioak errespetatuz ikastetxeak sortzeko askatasuna, eta gurasoek beren erlijio, filosofiko eta pedagogiko sinesteen arabera beren seme-alaben hezkuntza eta irakaskuntza bermatzeko duten eskubidea; betiere, horiek nola baliatu arautzeko nazio bakoitzak dituen arauekin bat etorritu egiten bada”.

Areago, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ere, 84. artikuluko 1. apartatuan, ikasleak onartzei dagokionez, hone-

la dio: “Hezkuntza-administrazioek ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko aukera arautuko dute, halako moldez non bermatuko baita hezkuntzarako eskubidea, berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera eta gurasoek edo tutoreek ikastetxea aukeratzeko askatasuna”. Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak ez zuen aldatu apartatu hori.

Horiek horrela, familiei bermatu behar zaie titularitasun publikoko zein gizarte ekimeneko ikastetxeak aukeratzeko eskubidea, gurasoen eskaerari erantzuten dion eskaintza baten bidez, halako moduz non hezkuntza-erakundeen eskaintza anitz bat eratuko den. Hezkuntza-eskaintza anitzik gabe ez dagoelako benetako askatasunik.

Beste alde batetik, gogoan izan behar dugu funts publikoekin sostengatutako ikastetxeei ikasleak derrigorrez atxikitzeak, bizilekuaren irizpide hertsia bidez, aukeratzeko askatasuna nabarmen murrizteaz gain ez duela ekitatea bermatzen, hain zuzen ere kalitateko hezkuntzarako irispideari dagozkion desberdintasunak bizilekuagatik gertatzen direlako.

Hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntzarako askatasuna oinarrizko eskubide gisa jotzen dituzten arau eta jurisprudentzia oparoak egonda ere, Gobernuak eskubide hori higatu nahi du, osagarriak diren sareak elkarren aurka jarri eta alarma soziala piztuz familietan eta hezkuntza-erkidegoan. Horrela hautsi egiten da gure demokraziako lehen hezkuntza-itun handia, irakaskuntza publikoaren eta itunduaren bitariko sistema osagarriarena, zeina Konstituzioaren 27. artikuluan finkatzen den.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiazten ditu gure Konstituzioan hezkuntza dela-eta ezarritako askatasunak berma eta handitu ditzaten, hezkuntzarako eta irakaskuntza-askatasunerako eskubidearen garapen harmoniatuaren bidez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiazten ditu berma dezaten gurasoek beren seme-alabentzako hezkuntza-mota eta haiek eskolatzeko ikastetxea aukeratzeko duten eskubidea.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiazten du gizarte-eskaera mantentzeko, LOMCEk Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 109.2 artikuluari emandako testuak diogen moduan, irakaskuntzaren programazio orokorrera-

ko faktore erabakigarri gisa, hezkuntza-eskaintza anitza sustatuz sare osagarrietan, publikoan eta pribatu-itunduan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu ikastetxe itunduen sarea defenda dezaten eskaintza publikoaren osagarri den eskaintza anitz horren berme gisa eta, beraz, familien hautatze-askatasunaren eta hori egikaritzeko aukera-berdintasunaren berme gisa; xede horrekin ikastetxe guztiak hornituz, publikoak nahiz pribatu-itunduak, horretarako beharrezkoak diren baliabideez.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu, ikastetxeen antolaketa- eta pedagogia-autonomia susta eta babes dezaten, kalitatezko hezkuntza-proiektuak garatze aldera, familien kezka eta lehentasunei erantzuteko modukoak, halatan familiek askatasunez aukeratu ahal izan ditzaten aipatu ikastetxeak.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu berma dezaten hezkuntza bereziko ikastetxeak egotea, doakoak eta kalitatekoak, hala sare publikoan nola pribatu itunduan, familien aukeratze-eskubidearen berme-emaila gisa.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu eskola itunduaren finantzaketa-eredua egokituz

dezaten, familia guztiei bermatze aldera hartarako irispidea berdintasun-baldintzetan edukitzea.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu eskolatze-eremu bateratuak susta ditzan ikasleak onartzeko prozesuan, ezertan ukatu gabe lehentasun-irizpideak, aukera-berdintasuna eta hezkuntza-berdintasuna bermatze aldera.

9. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak prestatutako hezkuntzako estatistiketan gehitu ditzan hezkuntza-politiketako askatasunaren eta horren bilakaeraren adierazleak.

10. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du urgentziaz dei dezan Irakaskuntza Itunduko Mahai Sektoriala, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 2. bis artikuluan aurreikusten dena.

Halaber, onesten da erabaki hauen berri ematea Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministroari, Kongresuan, Senatuan eta legebiltzar autonomikoetan ordezkaturako talde parlamentarioen eldunei, bai eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioko Gobernu Batzordeari eta gure Komunitateko ikastetxe itunduei ere.

Iruñean, 2018ko irailaren 26an.

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

**Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da ikastetxe publikoak behar adina baliabide ekonomikoz horni ditzan, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko curriculum-jarduerak egiteko nahiz beharrezkoak diren eskola-material suntsikorrak lortzeko zailtasunak dauzkaten ikasleen beharrezkoak diren erantzute aldera.**

**IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita ikastetxe publikoak behar adina baliabide ekonomikoz horni ditzan, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko curriculum-jarduerak egiteko nahiz beharrezkoak diren eskola-

material suntsikorrak lortzeko zailtasunak dauzkaten ikasleen beharrezkoak diren erantzute aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Testuliburuaren eta curriculum-materialen doakotasun-programa aurrerapauso handia izan da derrigorrezko mailetako irakaskuntzaren doakotasunari begira. Ikasleek, halere, material suntsikorrek ere erabili behar dituzte –hau da, galkorrek eta erabilera bakarrekoak–, eta zailtasun ekonomikoak dauzkaten familiek ezin dituzte horiek ordaindu.

Prekarietate ekonomikoa bizi duten familiek nekez ordaintzen ahal dute eskolaz kanpoko nahiz aparteko jardueren kostua ere (txangoak, bisitak edo eskola-ordutegitik kanpo eta eskola-ingurune-tik kanpo egiten diren bestelako curriculum-jarduerak). Ikastetxe publikoek ezin dute eta ez lukete jarduerarik programatu behar, baldin eta jarduera horren kostuak berekin badakar ordaindu ezin duten ikasleak bazter gelditzea.

Ikastetxe publikoak dira, hain zuzen ere, egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleen ehuneko handiena hartzen dutenak; eta hala izan behar du, zeren irakaskuntza sistema publikoa baita ikasle guzti-guztiek kalitatezko irakaskuntza jasoko duela bermatu behar duena, zein diren ere ikasle bakoitzaren baldintza indibidual, familiar eta sozialak.

Gabezia ekonomiko horiek estaltze aldera Hezkuntza Departamentuak ezarritako prozedurak

–esate baterako, emergentziatzko laguntzak– eraginkortasun txikikoak eta oso burokratikoak dira.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du ikastetxe publikoak behar adina baliabide ekonomikoz horni ditzan, arrazoi ekonomikoengatik Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko curriculum-jarduerak egiteko nahiz beharrezkoak diren eskola-material suntsikorrek lortzeko zailtasun larriak dauzkaten ikasleen beharrezko erantzute aldera, halatan ikasle guztiek izan dezaten irakaskuntza-ikaskuntza jarduera guztietarako irispidea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du izaera ekonomikoko neurriak ezar ditzan itunpeko ikastetxe pribatu-tako ikasleen familiei laguntzeko, arrazoi ekonomikoengatik Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko curriculum-jarduerak egiteko nahiz eskola-material suntsikorrek lortzeko zailtasun larriak dauzkaten, halatan ikasle guztiek izan dezaten irakaskuntza-ikaskuntza jarduera guztietarako irispidea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du hezkuntza-erkidego osoak esku hartzen duen planak eta proiektuak susta ditzan ikastetxeetan, ikasle guztien hezkuntza-aukeretarako berdintasuna bermatzera bideratuak, hezkuntza-erkidegoko kide guztien elkartasunetik abiatuta.

Iruñean, 2018ko irailaren 27an

Eleduna: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nasuvinsaren alokairu-poltsan sartzen diren etxebizitzaren baldintzak alda ditzan.**

### *OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nasuvinsaren alokairu-poltsan sartzen diren etxebizitzaren baldintzak alda ditzan, Legebil-

tzarreko Osoko Bilkuran izapidetu dadin. Mozioa 2018ko urtarrilaren 12ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxebizitza partekatuko Belaunaldiarteko Programa bat sor dezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan.**

### *ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Etxebizitza partekatuko Belaunaldiarteko Programa bat sor dezan, Nafarroako Unibertsitate Publi-

koarekin lankidetzan, Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin. Mozioa 2018ko irailaren 7ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko jarduketa plan bat abian jar dezan.**

*OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko jarduketa plan bat abian jar

dezan, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izapidetu dadin. Mozioa 2018ko irailaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Datu pertsonalen babeserako Nafarroako Parlamentuko ordezkari izendatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko ekainaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarreko segurtasun-arduradunak 2018ko maiatzaren 25ean txosten bat eman du, Datu Pertsonalen Babes Sistemari buruzko Erregelamendu Orokor berrira Nafarroako Parlamentuak egokitzeari buruzkoa. Txosten horretan hartu beharreko neurriak jasotzen dira, eta horien artean lehenbizikoa da datu pertsonalen babeserako ordezkari bat izendatzeko beharra.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Legebiltzarreko legelari Silvia Doménech Alegre andrea datu pertsonalen babeserako Nafarroako Parlamentuko ordezkari izendatzea.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza